

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

#### **Foru Gobernu Kontseiluaren 808/2019 Erabakia, abenduaren 17koa. Onestea enplegurako prestakuntza emateko laguntza lerroaren 2020rako deialdia**

Langileen prestakuntza lehenetsuneko balio estrategikoa da egungo aldaketa teknologikoko, ekonomikoko eta sozialeko prozesuetan. Gainera, funtsezko tresna da enpleguaren egonkortasunerako eta kohesio sozialerako.

Arabako prestakuntza zentroek eta entitateek prestakuntza eskaintza zabala dute, barnean enpresek sustatutako prestakuntza planen osagarri edo, besterik ezean, prestakuntza beharrei erantzuteko.

Prestakuntzaren bidez biztanleria aktiboari ezagutzak eta lanabesak eman nahi zaizkio enplegarritasuna hobetzeko, Arabako enpresek eskatzen dituzten gaitasunei, metodoei edo teknikei buruzko gaitasun profesionala eskuratzea ahaleginduz, teknologia berriak sartzea errazteko, eta horrela, ekoizpen sistema orokorraren lehiakortasuna hobetzeko.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak dauzkan eskumeneren artean Araban prestakuntzarako laguntzen programak eta planak kudeatzea eta izapidetzea daude; horien bitartez Arabako Lurralde Historikoan prestakuntza ekintzak egitea bultzatzen eta sustatzen du.

Horretarako, egokitzat jotzen da enplegurako prestakuntzarako laguntzen deialdia egitea, bi ekintza motaren bidez: enplegurako prestakuntza ikastaroak eta zabalkunde jardunaldiak.

Arabako Foru Aldundiak, Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez, onspena eman zien Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumeneren eremuan emango diren dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorrei.

Oinarri horien onspenaren ondorioz, eta ahalik eta zabalkunderik gehien ematearren eta publizitatearen, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, 2020ko ekitaldian entitateetan prestakuntzako ekintzak egiteko laguntzen deialdia ezarri behar da.

Horregatik guztiagatik, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren,

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Prestakuntzako entitateetan enplegurako prestakuntza emateko laguntzen 2020ko ekitaldiko deialdia onestea, erabilgarri dagoen aurrekontu esparrura mugatuta. Laguntzetarako ezartzen den gehieneko zuzkidura 713.000,00 eurokoa da. Deialdia erabaki honen eranskinean dago.

Bigarrena. Deialdia honako hauek arautzen dute: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzak norgehiagoka araubidean dirulaguntzak emateko aplikatzen diren oinarri orokor arautzaileek (Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua) eta ebazpen honen eranskinean xedatzen denak.

Hirugarrena. Erabaki honen bidez araututako dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiak, 2020ko aurrekontuan, irabazteko xederik gabeko erakundeetan eta Arabako kuadrilletan prestakuntza emateko esleitzen dituen aurrekontu partidetatik ordainduko dira, Deialdiko espedientea behin-betiko behin betiko ebazteko baldintza izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea 2020ko ekitaldiko aurrekontu antolaketa.

- 563.000,00 euro, irabazteko xederik gabeko erakundeentzat.
- 150.000,00 euro Arabako kuadrillentzat, Gasteizko kuadrillarentzat izan ezik.

Saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak birbanatzeko, Balorazio Batzordearen proposamena aintzat hartu ondoren. Horretarako ebazpena emango du, deialdiaren guztirako aurrekontua ezinbestean errespetatuta.

Deialdi honetan adierazten diren aurrekontuko partiden hasierako hornidurak aurrekontu transferentzia egokien bitartez gehitu ahal izango dira, ehuneko 100 arte, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, eta honen aurka, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan dioenarekin bat etorritik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Foruko Gobernu Kontseiluari, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkaratu daiteke administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioaren aurrean, erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko abenduaren 17a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren saileko foru diputatua*

**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria*

**BELÉN GONZÁLEZ BENITO**

**ERANSKINA****ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZARAKO LAGUNTZAK  
(IKASTAROAK ETA ZABALKUNDE JARDUNALDIAK)****2020ko deialdiaren oinarriak****I. KAPITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua**

Hauxe da prestakuntzako entitateetan enplegurako prestakuntza emateko laguntzen deialdiaren xedea: lanbide heziketako zentroek, fakultateek eta unibertsitate eskolek, irabazteko xederik gabeko erakundeek eta Arabako kuadrillek prestakuntza ekintzak (enplegurako prestakuntza ikastaroak eta zabalkunde jardunaldiak) egin ditzatela bultzatzea eta sustatzea, helburuak direla biztanle aktiboen (lanean ari direnen zein lanik ez dutenen) gaitasunak eta trebeziak hobetzea eta gure ekonomiaren lehiakortasuna gehitzea.

Laguntza deialdi honek diruz lagundu ditzakeen ekintzak Arabako lurralde historikoan garatu behar dira.

**2. artikulua. Enplegurako prestakuntzako ekintzak: motak**

2.1. Enplegurako prestakuntzako ekintzak bi motatakoak izan daitezke:

I. Enplegurako prestakuntzarako ikastaroak biztanle aktibo guztientzat (lanean ari direnentzat zein lanik ez dutenentzat).

II. Zabalkunde jardunaldiak.

2.2. Prestakuntza ekintzek jorratu beharreko gaiak zuzenean egon beharko dira lotuta Arabako sistema produktiboarekin eta Arabako enpresen eta lan merkatuaren langile beharri-zanekin. Beraz, kultura, aisia eta astialdia eta beste arlo batzuk ez dira landuko prestakuntza ekintzetan, eta kanpoan geratuko dira, halaber, administrazio publikoetako funtzionarioentzako edo lanpostu nahiz kargu publikoa dutenentzako prestakuntza ekintzak.

**3. artikulua. Erakunde onuradunak**

Deialdi honetan, onuraduntzat joko dira ondoren azaltzen diren erakunde motak, baldin eta sozietatearen egoitza Araban alta emanda badute edo gutxienez ere egoitzaren bat edo zerbitzu zentzoren bat lurralde horretan badute:

– Irabazteko xederik gabeko erakundeetan prestakuntza egiteko partidaren barruan:

a) Enplegurako prestakuntza ikastaroen artean:

– Lanbide heziketako zentroak, publikoak zein irabazteko xederik gabekoak.

– Unibertsitate fakultate eta eskolak, publikoak zein irabazteko xederik gabekoak.

– Irabazteko xederik gabeko erakundeak (fundazioak, elkarteak...) Baldin eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren erregistroan edo Prestakuntza Entitateen Estatuko Erregistroan entitate gisa ziurtatuta edo inskribatuta badaude.

b) Zabalkunde jardunaldiak: irabazteko asmorik gabeko entitateak.

– Arabako kuadrilletan prestakuntza egiteko partidaren barruan: Arabako kuadrillak, Gas-teizko Kuadrilla izan ezik.

Ez dira inolaz ere laguntza hauen onuradun izango irabazteko xederik gabeko erakundeak.

#### 4. artikulua. Entitate eskatzaileen eskakizunak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa

4.1. Eskaerak elektronikoki aurkeztuko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen erregistro elektronikoan, betiere kontuan izanda zer xedatzen duen Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak.

4.2. Erakunde eskatzaileek egunean egon beharko dute zerga betebeharreran eta Gizarte Segurantzarekikoetan, 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera hura frogatzetik salbuetsita egon ezean, bai emateko ebazpenaren, bai dirulaguntza ordaintzeko unearen aurretik.

Eskaera aurkezteak baimena emango dio Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzari biltzeko Arabako Foru Ogasunak eta Gizarte Segurantzak eman beharreko ziurtagiriak.

Beste foru aldundi edo Arabako Lurralde Historikoaz bestelako lurralde erkide bateko ogasunaren aurrean zerga betebeharrak bete behar baditu pertsona fisiko edo juridiko eskatzaileak edo onuradunak, zerga betebeharren eskakizunak zergak ordaintzeko betebeharra duen zerga administrazio bakoitzari egiten dio erreferentzia. Eskakizunak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu eskatzaileak.

Titularitate publikoko entitateek ez dute justifikatu behar Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen dituztela.

4.3. Laguntza hauen onuradun diren irabazteko xederik gabeko erakundeek legez eratuta egon beharko dute, eta, gainera, diruz lagunduko den prestakuntza jarduerak haien xede edo helburu sozialekin zuzeneko lotura izan behar du.

4.4. Kide bihurtzeko prozesuan edo funtzionamenduan sexu diskriminazioa eragiten duten entitateak ezingo dira izan dirulaguntza hauen onuradun, hala xedatzen baitu Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legearen 24.2 artikulua (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea).

Era berean, ezin izango dira lehiatu, dagokien zehapenak ezarritako denboran, sexuagatik bereizkeria eragiteagatik zehapen administratibo edo penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen ondorioz debeku horrekin zehatutakoak ere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak, Euskadiko ogasunaren antolaraei buruzko Legearen testu bateratua onartzen duenak, 50.5 artikuluan jasotzen duen bezalaxe, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak azken xedapenetako seigarrenean emandako idazkeraren arabera.

4.5. Lanbide Heziketako ikastegiak, unibertsitate fakultateak eta eskolak eta Arabako kuadrillak ez diren erakunde eskatzaileek, eskaera aurkezteko garaian, frogatu beharko dute badutela gutxienez egoitza bat edo zerbitzu zentro bat Arabako Lurralde Historikoan, dela jabetzan, dela alokairuan.

4.6. Irabazteko xederik gabeko erakundeek (fundazioak, elkarteak...) agiri bidez egiaztatu beharko dute irabazteko xederik gabeko erakundeak direla. Horretarako, kasuan kasuko administrazio erregistroko inskripzioa aurkeztu beharko dute.

Justifikazio hori ez da aurkeztu beharko, aurreko urteetan aurkeztu bada eta irabazteko xederik gabeko erakundetzat hartzeko egoerak aldatu ez badira.

4.7. Enplegurako prestakuntza ikastaroak emango dituzten erakunde eskatzaileek, salbu eta Lanbide Heziketako ikastegiekin, unibertsitate fakultateek eta eskolek eta Arabako kuadrillek, frogatu beharko dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Erregistroan edo, hala badagokio, prestakuntzako entitateen estatuko erregistroan prestakuntzako entitate gisa daudela egiaztatuta edo inskribatuta. Egiaztapen eta/edo inskripzio horrek dirulaguntzaren eskabidearen aurretikoa izan beharko du eta aurkeztutako frogagiriaren datak uneko urtekoa izan behar du.

4.8. Zabalkunderako jardunaldiengatik dirulaguntza eskatzen duten erakundeen egoeran, agiri bidez argitu behar da entitate eskatzaileak jasandako BEZa zerga horren aitortpenean kengarria den ala ez. Horretarako, eskatzaileak 2019ko BEZaren behin betiko hainbanaketaren frogagiriak aurkeztuko ditu, behar izanez gero. Atal hori behar bezala justifikatu ezean, ulertuko da zabalkunde jardunaldiak egiterakoan jasandako BEZa ezin dela diruz lagundu.

#### **5. artikulua. Deialdiaren homidura**

5.1. Deialdirako 713.000,00 euro hornitu dira; hona banakapena:

– 563.000,00 euro lanbide heziketako zentroek, unibertsitate fakultateek eta eskolek, eta irabazteko xederik gabeko entitateek prestakuntzako ekintzak egiteko. Zenbateko horretatik, 533.000,00 euro, ikastaroak egiteko zuzenduko dira, eta 30.000,00 euro, jardunaldiak egiteko.

– 150.000,00 euro biztanle aktibo guztientzako prestakuntzako ikastaroak ematen dituzten eta Arabako kuadrillek garatzen dituzten prestakuntza ekintzetarako.

Aurrekontu partida bakoitzean egon litekeen funts soberakinen birbanaketa honela egingo da:

– Irabazteko xederik gabeko erakundeen partidaren barruan:

– Enplegurako prestakuntza ikastaroetan gerakinen bat egongo balitz, zabalkunde jardunaldietarako eskaeretara zuzenduko litzateke.

– Zabalkunde jardunaldietan gerakinen bat egongo balitz, enplegurako prestakuntza ikastaroetarako eskaeretara zuzenduko litzateke.

– Adierazitako banaketa horiek egin ondoren, oraindik ere gerakinen bat balego, Arabako kuadrilletan egingo diren prestakuntza ikastaroetara zuzenduko litzateke.

– Arabako kuadrilletako partidaren barruan:

– Gerakinen bat egongo balitz, enplegurako prestakuntza ikastaroetarako eskaeretara zuzenduko litzateke.

– Esleipen hori egin ondoren oraindik ere gerakina egongo balitz, zenbateko hori zabalkunde jardunaldietarako eskaeretara zuzenduko litzateke.

5.2. Deialdi honetako aurrekontu partiden hasierako zuzkidura handitu ahalko da, ehuneko 100 arte, kasuan kasuko aurrekontu transferentzien bidez, baldin eta gerakinik bada Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan.

#### **6. artikulua. Zer den kanpo langilea eta zer barne langilea deialdi honetan**

Deialdi honetan, barne langilea izango da eskaera aurkezten duen entitatearen langilea dena eta prestakuntza jarduera emateagatik diru kopuru zehatzik kobratzen ez duena. Aldiz, kanpo langilea izango da, eskaera aurkezten duen entitatearen langilea izan ala ez, prestakuntza jarduera emateagatik diru kopuru zehatza kobratuko duena.

Prestakuntza ekintza entitate eskatzaileko bazkideek eta/edo parte hartzaileek eta/edo zuzendariak edo hari lotuta dagoen beste pertsonaren batek ematen badute, dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamenduaren 68.2 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, deialdi honetarako, barne langiletzat baino ezingo dira hartu.

#### **7. artikulua. Barne langileen kostuaren kalkulua deialdi honen ondorioetarako**

Barne langileen kostuaren kalkulua egiteko, honako formula aplikatuko da: diruz lagundutako ikastaroan emandako eskola orduak bider erakunde eskatzaileari zenbat ateratzen zaion prestakuntza ematen duen pertsonaren kostua ordu bakoitzeko.

Ordu bakoitzeko kostuaren kalkulua egiteko, zatiketa hau egingo da: prestakuntza ematen duenaren ordainsariengatik erakundeari ateratzen zaion ohiko kostuak zati pertsonan horren gutzitirako lan orduak. Kalkulu hori egiteko, dirulaguntza eskatzen den urteko datuak erabiliko dira.

Urteko gutzitirako ordu kopurutzat hartuko da prestakuntza ematen duen barne langilearen gutzitirako lan orduak, baina kostua/ordua kalkulatzeko ezin izango da 1.500 ordu baino gutxiago izan. Urteko lan orduen kopurua behar bezala justifikatzen ez bada, 1.700 ordu hartuko dira urteko lan ordutzat.

#### **8. artikulua. Prestakuntza ekintzak egiteko aldia**

Dirulaguntzaren xede diren prestakuntza ekintzak deialdiaren ebazpena ematen denetik aurrera hasi beharko dira eta amaituta egon beharko dira 2020ko azaroaren 30erako.

Ikastaroaren zati bat gehieneko amaiera alditik (2020ko azaroaren 30a) kanpo garatzen bada, aurreko paragrafoan aipatutako aldiaren barruan emandako ordu kopurua soilik lagundu ahal izango da diruz, eta hainbanaketa egingo da, ikastaroaren ordu kopuru osoari dagokionez.

#### **9. artikulua. Ikastaro edo jardunaldi bakoitzeko aurkeztu beharreko agiriak**

Erakunde eskatzaileek egoitza elektronikokoan ikastaro edo jardunaldi bakoitzeko zehaztu duen eskaera inprimakia bete beharko dute eta honako agiri hauek erantsi:

– Eman beharreko ikastaroaren edukia azaltzen duen txostena; haren helburuak eta edukiak aipatu behar dira.

– Ikasleak hautatzeko irizpideak (ikastaroak badira soilik).

– Prestakuntzako ekintzaren programa.

– Irakasleen curriculumak.

Edonola ere, prestakuntza ekintzaren aurrekontu ekonomikoa xehatuta egongo da 15. Artikuluan enplegurako prestakuntza ikastaroetarako jasotako gastuen sailkapenaren eta 22. artikuluan zabalkunde jardunaldietarako jasotakoaren arabera.

#### **10. artikulua. Jardunbidea bideratzeko eskumena duten organoak**

10.1. Dirulaguntza emateko prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak izapidetuko du, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren bidez.

10.2. Balorazio batzordea edo oinarri orokorrak arautzen dituen azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren 6. artikuluan aipatzen duen kide anitzeko organoa honako hauek osatuko dute:

• Lehendakaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

• Kideak: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.

• Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikari bat.

10.3. Batzorde horrek ikastaro, jardunaldi eta azterlan diagnostikoen eskaerak baloratuko ditu, banaka, erakunde eskatzailearen motaren eta prestakuntzako ekintza motaren arabera eta hautaketa irizpideen eta balorazioarekin bat etorritik (18. eta 25. artikuluetan).

Partida bakoitzaren barruan, eta prestakuntzako ekintza mota bakoitzaren barruan, lehentasunen hurrenkera bat zehaztuko da, lortutako puntuazio handienetik txikienera, eta hurrenkera horri jarraituz eskatutako ekintza bakoitzari egokitu ahal zaizkion dirulaguntzen esleipena proposatuko da, puntuazio handiena lortu dutenetatik hasita, harik eta kreditu erabilgarria agortu arte.

Azken puntuazio tarteari dagozkion esleipenak –tarte horrek amaitzen du aurrekontu baliagarria– gerakin baliagarria hainbanatuz egingo dira, diruz laguntzeko modukoa den jarduera bakoitzaren aurrekontu diruz laguntzeko modukoaren arabera.

10.4. Balorazio batzordeak ebazpenen proposamena aurkeztuko dio organo eskudunari, egoki den ebazpenak eman ditzan.

10.5. Ebazpenak gutun ziurtatuaren bidez jakinaraziko zaizkio erakunde interesdunari, jaso izanaren agiriarekin. Ebazpen horren aurka, zeinak administrazio bidea amaituko baitu, aukurako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman zuen organoari berari edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako Gasteizko epaitegietan. Ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, lehena aurkezteko hilabete izango da eta bigarrena aurkezteko bi hilabete.

10.6. Oro har ulertuko da eskaera ezetsi dela, baldin eta, berariazko ebazpena eman ez bada Administrazio Isiltasunari buruzko Foru Araudia urriaren 3ko 4/1999 Legea egokitzen duen 1/1999 Foru Dekretu Arauemailearen 2. artikuluko 14 idatz zatian ezarritako ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko 6 hileko epea igaro ondoren.

## II. KAPITULUA

### ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA IKASTAROAK

#### **11. artikulua. Laguntza jaso dezaketen jarduerak**

Biztanle aktiboentzako —landunak zein langabeak— prestakuntzako ekintzek jaso ahal izango dute laguntza. Ekintza horiek lan merkatuaren beharrak eta eskariak bete behar dituzte, eta lehentasunez honako xede hauek eduki behar dituzte:

- Langabeen enplegarritasuna eta lana duten langileen trebakuntza hobetzea.
- Arabako enpresek eskatutako jakintza, metodo edo teknikei buruzko gaitasun profesionala eskaintzea.
- Teknologia berrien sarrera erraztea eta ekoizpen sistema orokorraren lehiakortasuna hobetzea.
- Trebakuntza hobetzea lanbide trebakuntzaren estatuko sistemako profesionaltasun ziurtagiriren bat lortzea errazteko, aurretik sistema horretan sartzeko baldintzak beteta.

#### **12. artikulua. Prestakuntza ikastaroen betekizunak**

12.1. Ikastaro bat diruz laguntzeko, betekizun hauek beteko dira:

- Gutxienez 5 pertsona hasi behar dira ikastaroan.
- Dirulaguntzaren xede diren ikastaroko gastuen zenbatekoa 500,00 euro izan behar da gutxienez.
- Ikastaroek, gutxienez, 10 ordu iraungo dute.

Behin prestakuntza jarduera eginda, ez balitz bete aurreko betekizunetakoren bat, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko da.

12.2. Ikastaroetan diruz lagundu daitekeen gehieneko ordu kopurua 100 izango dira.

12.3. Hainbat modulu edo atal dituzten ikastaroen kasuan, honako hauek hartu beharko dira kontuan laguntza jasotzeko:

– Modulukako ikastaroa prestakuntza ekintza bakartzat hartuko bada, moduluak koherenteak izan behar dira beren artean. Baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz moduluen artean ez badago koherentziarik, modulu bakoitza ikastaro bat izango da. Alderantziz, ikastaro lokabetzat aurkezten badira ikastaro baten atal edo modulu izan daitezkeen prestakuntza ekintzak, horiek guztiak ikastaro bakartzat joko dira laguntza jasotzeko.

– Ikasletzat ikastaroaren modulu guzti-guztiak egin dituzten pertsonak bakarrik hartuko dira. Beraz, modulu batzuk bakarrik egiten dituztenak ez dira ikasletzat joko.



**13. artikulua. Dirulaguntza jaso ezin duten ikastaroak**

Ezingo dira diruz lagundu honako ikastaro hauek:

- Gaia dela eta, Arabako ekonomia edo lan jardueraren lehiakortasuna hobetzen nahikoa laguntzen ez dutenak.
- Nagusiki teorikoak edo orokorrak diren ikastaroak.
- Entitate eskatzaileetako langileen eta/edo zuzendarien barne prestakuntza helburu duten ikastaroak.
- Entitate eskatzailearen edo haren partaideen xedeekin eta berezko jarduerarekin lotuta ez dauden ikastaroak.
- Araututako hezkuntza eskaintzan sartuta dauden ikastaroak eta hezkuntza sistemak onartutako titulazio ofiziala ematen dutenak.
- Hizkuntza ikastaroak.
- Ibilgailuak, itsasontziak edo aireontziak gidatzeko ikastaroak, orga jasotzaileei eta/edo fabrika baten edo antzeko instalazio baten barrualdean zeregin logistikoetan erabiltzen diren bestelako elementuei buruzkoak izan ezik.
- Online prestakuntza moduluak dituzten ikastaroak (teleprestakuntza).
- Balorazio batzordearen iritziz deialdiaren helburu orokorraren barruan kokatzen ez diren ikastaroak.

**14. artikulua. Eska daitekeen ikastaroen gehieneko kopurua eta ikasleen hautaketa**

14.1. Entitate eskatzaile berak, Vitoria-Gasteizen bertan egin edo udalerritik kanpora egin, gehienez, honako ikastaro kopuru hauek eskatu ahalko ditu:

- Irakaskuntza arautuko ikasleen kopurua 2.000 baino handiagoa ez duten LHko zentroak: 15.
- Irakaskuntza arautuko ikasleen kopurua 2.000 baino handiagoa duten LHko zentroak: 30.
- Unibertsitateko eskolak eta fakultateak: 15.
- Irabazteko xederik gabeko gainerako erakundeak: 15.

Aldi berean, irabazteko xederik gabeko gainerako entitateen taldearen kasuan, lotutako entitateek ikastaro eskabide desberdinak aurkeztuz gero, lotutako entitate horiek batera eska dezaketen kopurua, gehienez, 20 ikastaro izango da.

- Arabako kuadrillak: 10.

Entitate eskatzaile batek ikastaro gehiago aurkeztuz gero, baimendutako gehieneko kopuruaz gaindikoak ofizioz baliogabetuko dira, balioetsi gabe, eskatu diren hurrenkera berean.

Bi erakunde eskatzailearen edo gehiagoren arteko loturarik bada, eta erakunde horiek aurkeztutako ikastaroen baturak ezarritako muga gainditzen badu, ofizioz baliogabetuko dira eta ez dira balioetsiko gehienezko kopurua gainditzen dutenak. Kasu horretan, balioetsiko diren ikastaroak Arabako Foru Aldundiaren Erregistroan sarrera data zaharrena dutenak izango dira, eta sarrera data bera badute, sarrera erregistroko zenbaki zaharrena dutenak hartuko dira kontuan. Zenbait ikastarok sarrera erregistroko zenbaki bera dutenean, entitate eskatzaileak ikastaroen zerrendan ezarritako hurrenkerari jarraituko zaio.

14.2. Entitate eskatzaileek eskaeran adierazi behar dute nola hautatzen dituzten ikasleak; ahal dela, lehentasuna eman behar diete Lanbideren orientazio zerbitzuek dirulaguntza eskatutako prestakuntza ekintzara edo antzeko batera bideratu dituztela frogatzen duten eskatzaile langabeei.

14.3. Erakunde eskatzailea sektore edo elkarte ekonomikoen federazioa edo elkarte baldin bada, sektorearteko ikastaroak baino ezingo ditu eskatu.



**15. artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak**

15.1. Honako gastu hauek, ez beste, lagundu ahal izango dira diruz:

a) Irakasle gastuak, ikastaroak dituen irakastorduei dagozkienak bakarrik.

b) Ikastaroa aurrera eramateko behar-beharrezkoa den materialaren gastuak.

Horri dagokionez, ikastaroan zehar kontsumitzen den materialaren gastua bakarrik onartuko da dirulaguntzarako; horren berri eman behar da amaierako memoria aurkezten denean.

Ez dira inola ere onartuko dirulaguntzarako ikastaroaren iraupena baino bizitza baliagarri luzeagoa duten elementuak.

c) Ikastaroaren istripu eta erantzukizun zibileko aseguruaren gastuak, baldin eta ikastaroaren ezaugarri bereziak direla eta berariazko aseguru bat kontratatu behar bada edo zentro edo entitate eskatzailearen aseguru orokorra zabaldu behar bada.

d) Ikastaroaren berariazko publizitate gastuak, erakunde eskatzaileari buruzko publizitate orokorreko gastuak izan ezik. Muga: 500,00 euro, baldin ikastaroa Gasteizen egiten bada; eta 800,00 euro, baldin Gasteiztik kanpo egiten bada.

e) Erakunde eskatzaile edo onuradunak bere prestakuntza zentroan egin ohi dituen prestakuntza jardueretarako erabili ohi dituen instalazioak eta ondasunak ikastaroa egiteko erabiltzeak eragindako gastuak. Atal honetako a), b) eta c) letretan jasotzen diren gastuen baturaren ehuneko 5 aplikatuko da. Instalazio eta ondasun horiek erabiltzeak eragindako gastuen barruan sartzen dira altzari, ordenagailu, material informatiko, arbel eta proiektagailuei dagozkien gastuak.

Gastu horiei aurreko paragrafoan aipatutakoak ez diren bestelako instalazioak edo ondasunak erabiltzeagatik ordaindu beharreko beste gastu batzuk erantsi ahalko zaizkie, atal honetako a), b) eta c) letretako gastuen baturaren ehuneko 20ko mugaraino, baldin eta horien beharra behar bezala justifikatzen bazaio Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari (Gasteiztik kanpo egingo diren prestakuntza ekintzetarako erabiliko diren instalazio edo ondasunen alokairua, baldin toki horietan bere instalaziorik ez badauka ikastaroa emango duen erakundeak; prestakuntza ekintzetarako ekipamendu espezifikoen eta normalean erabiltzen ez denaren alokairua; eta abar).

f) Gastu orokorrak eta kudeaketakoak; oro har, honelakotzat joko da idatz zati honetako a), b), c) eta d) letretan aipatzen diren gastuen baturaren ehuneko 10.

g) Irakasleak ikastaroa emateko lekuraino joateak sortutako gastuak, Gasteizko udalerritik kanpo egiten diren ikastaroetara joateko baino ez.

Dirulaguntza jasoko da bakarrik prestakuntza eman behar duen pertsonak (irakasle gastua fakturatzeko duen pertsona fisiko edo juridikoa) egoitza duen leku hurbilenetik prestakuntza ekintza emango den herrirainoko joan-etorrietarako, beti ere, udalerririk desberdinak badira.

Gastu hori honela kalkulatu da: prestakuntza ekintza ematen den egun bakoitzeko, aurreko lerroaldean jasotako distantzia kilometroetan bider bi eta 0,29 euro/km.

Aurkezten den eskaeran, lehen adierazitako moduan kalkulatu dagoen gastu horren aurrekontu bat erantsi behar da.

15.2. Dirulaguntzaren helburu diren ikastaroek Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua onesten duen urriaren 19ko 12/1993Foru Dekretu Arauemailearen 20.bat.9 artikuluan ezarritakoa bete beharko dute:

– Ikastaroa emateko eskuratutako ondasun edo zerbitzuengatik jasandako BEZa ikastaro horretako diruz lagundu daitezkeen gastuetan sartuko da.

– BEZaren foru arauaren 94. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, ikastaroa emateko eskuratutako ondasun edo zerbitzuengatik jasandako BEZak ez du kenkaria egiteko eskubiderik emango BEZaren aitortzearen, aitortzearen gero.

15.3. Dirulaguntzarako onar daitekeen gastu baten zenbatekoak 15.000,00 euro baino gehiagoko zerga oinarria badu, gutxienez hiru hornitzailei eskatu beharko die eskaintza ondasuna entregatu aurretik, merkatuan horrenbeste hornitzaile egonez gero.

Eskaintza hirukoitz hori eskabidearekin batera aurkeztu beharko da, eta adierazi beharko da zein hautatu den eta zer irizpide erabili diren hautaketarako.

15.4. Eskaerako gastu partidaren bat Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz ez badago nahiko lotuta dirulaguntza eskatzen den ikastaroarekin edo partidako gasturen baten zenbatekoa merkatuko balioa baino nahiko handiagoa bada, partida dirulaguntzaren zenbatekoaren kalkulutik kanpo utzi ahal izango da edo aldatu ahal izango da.

15.5. Ehuneko 5 aplikatuko da instalazioak edo ondasunak erabiltzeagatik, baldin edozein erakunde onuradunek ezin badu ikastaroa eman bere instalazioetan beste ikastaro batzuetarako behar dituztelako eta prestakuntza ekintza ohikoak ez diren instalazioetan egin behar bada, udalerrian bertan.

## **16. artikulua. Diruz lagundu daitekeen aurrekontua ikastaroko**

16.1. Diruz lagundu daitekeen aurrekontua, ikastaroko, honako kopuru hauetan txikiena izango da:

- Diruz lagundu daitezkeen gastuen diru kopurua (15. artikuluan araututa daude).
- Ikastaroak iraungo duen orduen kopurua bider 90 euro/orduko. Ikastaroko 100 ordu lagundu ahal izango dira diruz, gehienez ere.

Ikastaroa Gasteizko udalerritik kanpo ematen bada, aurreko lerroaldeko emaitzari 15. artikuluko g) letran adierazten den zenbatekoa gehituko zaio, 50 euroko mugarekin joan-etorri egun bakoitzeko.

16.2. Orduko 90 euroko kopurua murriztu egin daiteke (ehuneko 30 gehienez) hau gertatuz gero: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak antzematen badu diferentzia nabarmenak izan direla aurreko deialdietako eskaeretakoa aurrekontuen eta aurkeztutako azken memorietan behar bezala frogatutako gastuen artean, antzeko gaiak edota gastuak dauzkaten ikastaroetan.

16.3. Orduko 90 euroko kopuru hori ehuneko 30 handitu ahal izango da, gehienez, baldin eta ikastaroa eman ahal izateko gastu handia egin behar bada material suntsikorretan. Hori dela eta, ikastaro batean material suntsikorretan gastu handia egin behar dela pentsatuko da baldin eta ikastaroan erabili beharreko material suntsikorraren kostua irakasleen kostua baino gehiago bada. Hori justifikatzeko, eskaerarekin batera entitate onuradunak aurrekontu xehatua aurkeztu beharko du, material suntsikorrarena zein irakasleen gastuarena.

## **17. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak**

Ikastaro bakoitzeko emango den zenbatekoa aurreko artikuluan zehaztu den diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100 izango da, honako mugarekin: diruz lagundu daitezkeen gastuak, 15. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuak, ken aurreikusitako dirusarrerak.

## **18. artikulua. Hautaketa eta balorazio irizpideak**

Oro har, honako hauek izango dira balorazio irizpideak:

- a) Ikastaroko gai zerrenda (0 – 40 puntu), honela banatuta:
  - Industria arloarekin (ekoizpena, muntaketa, mantentzea, biltegiatzea eta logistika) eta energia eta ingurumen eraginkortasunaren arloarekin zerikusia duten ikastaroak: 0-40 puntu.
  - Ekonomia, finantza, kudeaketa, gastronomia edo gizarte zerbitzuen arloarekin zerikusia duten ikastaroak: 0-30 puntu.

– Bestelako ikastaroak: 0 puntutik 20 puntura.

Talde horietako bakoitzaren barruan, puntuazioa graduatu egingo da, ikastaroaren zailtasun maila kontuan hartuta. Era berean, eta aplikazio informatikoekin zerikusia duten ikastaroen kasuan, horiek aurretik ezarritako mugen arabera balioetsiko dira, gaiaren arabera.

b) Ikastaroaren justifikazioa (0 – 20 puntu). Atal hau balioesteko, 9. artikuluan aipatzen den aurkeztu beharreko dokumentazioak duen informazioa hartuko da oinarritzat, eta baita Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak hauteman dituen prestakuntza beharrak ere.

c) Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako pizgarria (0 – 10 puntu), honela banatuta:

Emakumeak kontratatuko diren irakasleetan parte hartzearen:

– Emakumezko irakasleek emango duten ordu kopuruaren ehunekoa ikastaroko ordu guztien ehuneko 40 eta ehuneko 60 bitartekoa bada, bi ehuneko horiek barne: 5 puntu.

– Emakumezko irakasleek emango duten ordu kopuruaren ehunekoa ikastaroko ordu guztien ehuneko 60tik gorakoa bada: 3 puntu.

Dirulaguntza eman dakion nahi den prestakuntzaren barruan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren alde gauzatu diren edo gauzatzekoak diren ekintza zehatzengatik: 0 puntutik 5 puntura. Bereziki baloratuko dira pizgarriak ematea emakumeek parte har dezaten sektore edo jarduera maskulinizatuetao ikastaroetan eta gizonek parte har dezaten sektore edo jarduera feminizatuetao ikastaroetan.

Egoki azaldu beharko dira lehen aipatutako ekintzak eta, hala badagokio, amaierako memoria aurkezten bada, egoki justifikatu beharko dira egindako ekintzak.

Horren harira, entitate eskatzaileek berariaz adieraziko dute eskaera orrietan nahi ote duten emakume eta gizonen arteko berdintasunagatiko pizgarriaren inguruko idatz zati honetako bi puntuetako bakoitza baloratzea.

Irakasleei dagozkien eskakizunak betetzen ez badira eta/edo emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko ekintzak gauzatzen ez badira eta berdintasunerako pizgarri gisa emandako puntuazioa erabakigarria izan bada dirulaguntza emateko, balio gabetu egingo da.

d) Aurkeztutako eskaeraren kalitate orokorra (0 – 5 puntu):

e) Entitate eskatzaileak aurreko deialdian izandako ibilbidea (0 – 5 puntu), honela banatuta, aurreko deialdiko esleipenean onetsitakoei dagokienez eraginkortasunez egindako ikastaro kopuruaren arabera:

– Onetsitako ikastaro guztiak egin baziren: 5 puntu.

– Onetsitako ikastaroen ehuneko 75 eta ehuneko 100 bitarteko ikastaro kopurua egin bazen: 4 puntu.

– Onetsitako ikastaroen ehuneko 50 eta ehuneko 75 bitarteko ikastaro kopurua egin bazen: 2 puntu.

– Onetsitako ikastaroen ehuneko 0 eta ehuneko 50 bitarteko ikastaro kopurua egin bazen: 0 puntu.

Aurreko deialdian eskatzaileak ez bazuen dirulaguntzarik eskuratu, puntu 1 jasoko ditu.

f) Langabezia egoeran dauden pertsonentzako prestakuntzarako pizgarria (0 – 10 puntu), honela banatuta (atal hauetako batengatik soilik emango dira puntuak):

– Ikastaroan izena eman duten pertsonen artean 5, gutxienez, langabeak izateko konpromisoa: 10 puntu.

– Ikastaroan izena eman duten pertsonen artean 3 edo 4, gutxienez, langabeak izateko konpromisoa: 5 puntu.

– Gainerako ikastaroak: 0 puntu.

Horren harira, entitate eskatzaileek berariaz adieraziko dute eskaera orrietan nahi ote duten langabezia egoeran dauden pertsonen prestakuntzarako pizgarriaren atal hori baloratzea.

Langabezia egoeran dauden pertsonen prestakuntzarako pizgarriaren atal horretako eskakizunak betetzen ez badira eta pizgarri gisa emandako puntuazioa erabakigarria izan bada dirulaguntza emateko, baliogabetu egingo da.

f) apartatu honetan ezarritakoaren ondorioetarako, pertsona bat langabezia egoeran dagoela ulertuko da ikastaroa hasten den egunean edo hasi aurreko 30 eguneko aldiaren uneren batean egoera horretan egon bada.

Langabezia egoera egiaztatzeko, erregistro publikoren batean (Lanbide, enplegu zerbitzua etab.) izena emanda dagoela egiaztatzeko agiria aurkeztu beharko da.

g) Gasteizko udalerritik kanpo ikastaroak egiteko pizgarria (10 puntu). Apartatu hau ez da aplikagarria Arabako kuadrillek egindako eskaerretarako.

Gasteizko udalerritik kanpo osorik emango diren ikastaroek 10 puntu izango dituzte hala eskatzen badu laguntzaren erakunde eskatzaileak.

Aurreko lerroaldean adierazitako eskakizuna betetzen ez bada eta apartatu honetako puntuazioa erabakigarria izan bada dirulaguntza emateko, baliogabetu egingo da.

Enplegua, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz berdina edo antzekoa diren bi ikastaro edo gehiago aurkezten baditu eskatzaile batek eta udalerritik berean egitekoak badira, eskuratutako guztizko puntuazioan murrizketa koefiziente aplikatuko da. Koefiziente hori handitu egingo da errepikatutako ikastaroen arabera, honela:

– Udalerritik berean errepikatutako lehenengo ikastaroa: Eskuratutako puntuazioa ehuneko 30 murriztuko da.

– Udalerritik berean errepikatutako bigarren ikastaroa: Eskuratutako puntuazioa ehuneko 40 murriztuko da.

– Udalerritik berean errepikatutako hirugarren ikastaroa: Eskuratutako puntuazioa ehuneko 50 murriztuko da.

### **19. artikulua. Ikastaroaren hasierako ziurtagiria**

Dirulaguntzaren xede den ikastaroa hasitakoan dirulaguntza jasotako entitateak ikastaroaren hasieraren ziurtagiriaren agiria bidali beharko du, behar bezala beterik, ikastaroa hasten denean 10 egun baliadun pasatu baino lehen, bai eta, hala badagokio, ikasle langabeak erregistro publiko batean (Lanbide, enplegu zerbitzua eta abar) inskribatuta daudela frogatzen duten agiriak ere.

Langabezia egoeran dauden ikasleak erregistro publiko batean erregistratuta daudela frogatu beharko da, soilik langabezia egoeran dauden pertsonen prestakuntzari buruzko atala balioesteko eskatu bada eta atal hori funtsezkoa izan bada dirulaguntza jasotzeko.

## **III. KAPITULUA**

### **ZABALKUNDE JARDUNALDIAK**

#### **20. artikulua. Laguntza jaso dezaketen jarduerak**

Dirulaguntza jaso ahal izango da teknologia berriekin, kudeaketa tresnekin, industria jarduerarekin edo industriari atxikitako zerbitzuekin loturik dauden zabalkunde jardunaldiak egiteko.

Ez da dirulaguntzarik emango diruz lagundu daitezkeen gastuak 300,00 euro baino gutxiagokoak diren jardunaldietarako. Era berean, jardunaldia egin ondoren, diruz lagundu daitezkeen gastuen zenbateko osoa 300,00 eurotik beherakoa bada, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu eta ez da ordainduko.

### **21. artikulua. Dirulaguntza jasotzeko eska daitezkeen jardunaldien gehieneko kopurua**

Entitate onuradun bakoitzak gehienez ere 5 ikastarotarako eska dezake dirulaguntza.

Aldi berean, lotutako entitateek jardunaldien eskaera bat baino gehiago egiten badute, lotutako entitate horiek, gehienez, 7 jardunaldi eskatu ahalko dituzte:

Entitate eskatzaileraren batek jardunaldi gehiago aurkeztuz gero, baimendutako gehieneko kopuruaz gaindikoak ofizioz balio gabetuko dira, balioetsi gabe, eskatu diren hurrenkera berean.

Bi erakunde eskatzaileraren edo gehiagoren arteko lotura badago eta 7 jardunaldi baino gehiago aurkezten badituzte, ofizioz balio gabetuko dira eta ez dira balioetsiko gehienez baimendutako kopurua gainditzen dutenak. Balioetsiko diren jardunaldiak Arabako Foru Aldundiko Erregistroan sarrera data zaharrena dutenak izango dira, eta sarrera data bera badute, sarrera erregistro zaharrena dutenak hartuko dira aintzat. Zenbait jardunaldik sarrera erregistroko zenbaki bera badute, entitate eskatzaileak jardunaldien zerrendan ezarritako hurrenkerari jarraituko zaio.

### **22. artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak**

22.1. Honako gastu hauek, ez beste, lagundu ahal izango dira diruz:

a) Hizlariaren gastuak:

– Hitzaldiaren lansariak.

– Halakorik izan bada, hizlaria Arabako Lurralde Historikoaren kanpotik etortzen denean, joan-etorri, mantenu eta ostatatze gastuak, honako muga hauekin:

– Bidaia gastuak: tiketaren edo txartelaren zenbatekoa.

– Auto partikularra: 0,29 euro kilometroko.

– Ostatua: 100 euro eguneko.

– Bazkaria/afaria: 21 euro.

– Gosaria (baldin eta ostatuaren barruan sartuta ez badago): 6 euro.

b) Jardunaldia aurrera eramateko behar-beharrezkoa den materialaren gastuak.

c) Jardunaldiaren istripu eta erantzukizun zibileko aseguruaren gastuak, baldin eta jardunaldiaren ezaugarri bereziak direla eta berariazko aseguru bat kontratatu behar bada edo erakunde eskatzailearen aseguru orokorra zabaldu behar bada.

d) Jardunaldiaren berariazko publizitate gastuak, erakunde eskatzaileari buruzko publizitate orokorreko gastuak izan ezik. Muga: 200,00 euro, Gasteizen egingo diren jardunaldietarako; eta 350,00 euro, Gasteiztik kanpo egingo diren jardunaldietarako.

e) Erakunde eskatzaile edo onuradunak egiten dituen jardueretarako erabili ohi dituen instalazioak eta ondasunak jardunaldia egiteko erabiltzeak eragindako gastuak. Atal honetako a), b) eta c) letretan jasotzen diren gastuen baturaren ehuneko 5.

Gastu horiei aurreko paragrafoan aipatutakoak ez diren bestelako instalazioak edo ondasunak erabiltzeagatik ordaindu beharreko beste gastu batzuk erantsi ahalko zaizkie, atal honetako a), b) eta c) letretako gastuen baturaren ehuneko 20ko mugaraino, baldin eta horien beharra behar bezala justifikatzen bazaio Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari.

f) Gastu orokorrak (argia, ura, berokuntza, telefonoa, eta abar) eta kudeaketakoak (prestakuntza eta administrazioa); oro har, honelakotzat joko da idatz zati honetako a), b) eta c) letretan aipatzen diren gastuen baturaren ehuneko 10.

22.2. Inola ere ez dira diruz lagunduko jardunaldiari atxikitako gonbitek sortzen dituzten gastuak (esaterako, gosariak, bazkariak edo afariak), aurreko 22.1.a. idatz zatian adierazi direnak salbu. Ez dira diruz lagunduko, ezta ere, opariak, eskuerakutsiak edo beste edozein eskuzabal-tasun.

22.3. Erakunde onuradunek jasandako balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa) diruz lagundu daitekeela ulertuko da, zergetan konpentsatu ezin duten neurrian. Horretarako, eta aplikagarri bada, erreferentzia izango da aurreko ekitaldiko behin betiko hainbanaketa. Zalantzarik izanez gero, BEZa ez da diruz laguntzekoa izango, non eta erakunde onuradunak ez duen frogatzen ezin duela haren kenkaririk aplikatu.

22.4. Dirulaguntzarako onar daitekeen gastu baten zenbatekoak 15.000,00 euro baino gehiagoko zerga oinarria badu, gutxienez hiru hornitzailei eskatu beharko die eskaintza ondasuna entregatu aurretik, merkatuan horrenbeste hornitzaile egonez gero.

Eskaintza hirukoitz hori eskabidearekin batera aurkeztu beharko da, eta adierazi beharko da zein hautatu den eta zer irizpide erabili diren hautaketarako.

22.5. Eskaerako gastu partidaren bat Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz ez badago nahiko lotuta dirulaguntza eskatzen den jardunaldiarekin edo partidako gasturen baten zenbatekoa merkatuko balioa baino nahiko handiagoa bada, partida dirulaguntzaren zenbatekoaren kalkulutik kanpo utzi ahal izango da edo aldatu ahal izango da.

### **23. artikulua. Dirulaguntzarako onar daitekeen aurrekontua, jardunaldiko**

Diruz lagundu daitekeen aurrekontua, jardunaldiko, honako kopuru hauetan txikiena izango da:

- Diruz lagundu daitezkeen gastuen kopurua (22. artikuluan araututa daude).
- Orduko 300,00 euroko kopurua jardunaldiaren iraupen orduz biderkatzearen emaitza.

### **24. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak**

Jardunaldi bakoitzeko emango den laguntzaren diru kopurua dirulaguntzarako onar daitekeen aurrekontuaren ehuneko 80 izango da, honako muga hauekin:

– Dirulaguntzarako onartzen diren gastuetatik (22. artikuluan ezartzen den moduan zehaztuta) aurreikusitako sarrerak kenduta geratzen den kopurua.

- Gehienez, 1.500,00 euro.

### **25. artikulua. Hautaketa eta balorazio irizpideak**

Balorazio irizpideak izango dira honako hauek:

a) Jardunaldiaren justifikazioa (0 – 70 puntu). Atal hau balioesteko, 9. artikuluan aipatzen den aurkeztu beharreko dokumentazioak duen informazioa hartuko da oinarritzat, eta baita Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak hauteman dituen prestakuntza beharrak ere.

b) Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako pizgarria (0 – 10 puntu), honela banatuta:

- Kontratutako diren hizlarien artean emakumeek duten parte hartzea:
- Jardunaldiko ordu kopuru osotik emakumezko hizlari langileek emango duten ordu kopuruaren ehunekoa ehuneko 40 eta ehuneko 60 bitartekoa bada (biak barne): 5 puntu.

– Jardunaldiko ordu kopuru osotik emakumezko hizlari langileek emango duten ordu kopuruaren ehunekoahuneko 60tik gorakoa bada: 3 puntu.

– Dirulaguntza eman dakion nahi den prestakuntzaren barruan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren alde gauzatu diren edo gauzatzekoak diren ekintza zehatzengatik: 0 puntutik 5 puntura.

Bereziki baloratuko da pizgarriak ematea emakumeek parte har dezaten sektore edo jarduera maskulinizatuetao jardunaldietan eta gizonen parte har dezaten sektore edo jarduera feminizatuetao jardunaldietan.

Egoki azaldu beharko dira lehen aipatutako ekintzak eta, hala badagokio, amaierako memoria aurkezten bada, egoki justifikatu beharko dira egindako ekintzak.

Horren harira, entitate eskatzaileek berariaz adieraziko dute eskaera orrietan nahi ote duten emakume eta gizonen arteko berdintasunagatiko pizgarriaren inguruko idatz zati honetako bi puntuetako bakoitza baloratzea.

Mintzalariei dagozkien eskakizunak betetzen ez badira eta/edo emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko ekintzak gauzaten ez badira eta berdintasunerako pizgarri gisa emandako puntuazioa erabakigarria izan bada dirulaguntza emateko, baliogabetu egingo da.

c) Aurkeztutako eskaeraren kalitate orokorra (0 – 10 puntu).

d) Entitate eskatzaileak aurreko deialdian izandako ibilbidea (0 – 10 puntu), honela banatuta, aurreko deialdiaren ebazpenean onetsitakoei dagokienez eraginkortasunez egindako ikastaro kopuruaren arabera:

– Onetsitako jardunaldi guztiak egin baziren: 10 puntu.

– Onetsitako jardunaldien ehuneko 75 eta ehuneko 100 bitarteko jardunaldi kopurua egin bazen: 7 puntu.

– Onetsitako jardunaldien ehuneko 50 eta ehuneko 75 bitarteko jardunaldi kopurua egin bazen: 4 puntu.

– Onetsitako jardunaldien ehuneko 0 eta ehuneko 50 bitarteko jardunaldi kopurua egin bazen: 0 puntu.

Aurreko deialdian eskatzaileak ez bazuen dirulaguntzarik eskuratu, puntu 2 jasoko ditu.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz berdinak edo antzekoak diren bi jardunaldi edo gehiago aurkezten baditu eskatzaile batek eta udalerrri berean egitekoak badira, eskuratutako guztizko puntuazioan murrizketa koefizientea aplikatuko da. Koefiziente hori handitu egingo da errepikatutako jardunaldien arabera, honela:

– Udalerrri berean errepikatutako lehenengo jardunaldia: Eskuratutako puntuazioa ehuneko 30 murriztuko da.

– Udalerrri berean errepikatutako bigarren jardunaldia: Eskuratutako puntuazioa ehuneko 40 murriztuko da.

– Udalerrri berean errepikatutako hirugarren jardunaldia: Eskuratutako puntuazioa ehuneko 50 murriztuko da.

#### IV. KAPITULUA

##### DIRULAGUNTZAK KUDEATZEKO ETA EMATEKO PROZEDURAK

###### **26. artikulua. Eskaerak aurkezteko tokia eta epealdia**

26.1. Eskaerak elektronikoki aurkeztuko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaan eskuragarri dagoen erregistro elektronikoaan, betiere kontuan izanda zer xedatzen duen Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak.



26.2. Eskaerak aurkezteko epea deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da eta 2020ko otsailaren 28an, 14:00etan bukatu.

### **27. artikulua. Dirulaguntzak emateko prozedura**

Oinarri hauetan aurreikusten diren dirulaguntzak emateko prozedura lehiaketa izango da.

## V. KAPITULUA

### DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEKO PROZEDURAK

### **28. artikulua. Emandako dirulaguntzak ordaindu daitezela eskatzeko aurkeztu beharreko agiriak**

28.1. Dirulaguntza ordaintzeko, diruz lagundutako ekintza egin dela dokumentatu behar da eta haren justifikazio kontua aurkeztu. Justifikazio hori egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen erregistro elektronikoa aurkeztuko da elektronikoki.

Justifikazio kontu erraztuak honako informazio hau jasoko du:

a) Dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzen duen jarduketa memoria, egin diren jarduerak eta lortu diren emaitzak adierazten dituen.

Baldin eta diruz lagundutako jardueran pertsonak parte hartzen badute, sexu aldagaia erantsi beharko da memorian emandako informazioan, baldin eta informazio hori izateko modua badago.

b) Jardueraren gastuen eta diru sarreraren sailkapen zerrenda. Hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, jaulkitze data eta, hala badagokio, ordainketa data adieraziko dira.

c) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako sarrera eta dirulaguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

Justifikazio kontu erraztuarekin batera, honako agiriak aurkeztu behar dira:

– Gastuen eta sarreraren zerrenda sailkatuan agertzen den gastu eta zenbateko bakoitza prestakuntza ekintzari egozteko arrazoien azalpena.

– Ikastaroari egotzita dauden diruz laguntzeko gastuei dagozkien langile gastuen fakturak eta ziurtagiriak.

– Entitate onuradunak kontratatutako irakasle edo hizlarien gastuak egozten direnean, baldin eta 6. artikuluan aipatutakoaren arabera kanpo langiletzat hartzen badira eta prestakuntza ekintza bat emateko besteren kontura kontratatu direnen kasuan, lan kontratuaren kopia erantsiko da.

– Prestakuntza ekintzak iraun duen ordu kopuruaren ziurtagiria, hura eman edo burutu duen pertsonak emana.

– Enplegurako prestakuntza ikastaroak Gasteizko udalerritik kanpo ematen direnean eta haiei irakasleen joan-etorrien gastuak egozten zaizkienean, prestakuntza eman duten pertsonak sinaturiko aitortpena aurkeztu behar da, non adieraziko baita ikastaroa emateko joan-etorria zein egunetan egin den eta zenbat kilometro dauden prestakuntza emaileak (irakaslearen gastua fakturazten duen pertsona fisiko edo juridikoa) duen egoitza hurbilenetik prestakuntza ikastaroa emango den herriraino.

– Prestakuntza ekintzari buruzko berriarazko publizitatearen lekukotasun grafikoa, halakorik izan bada.

– Matrikulak edo babesak direla-eta diru sarrerarik lortu bada, dela babesengatik, dela deialdi honetan emandako dirulaguntzaren beraren bestelako arrazoi batengatik, sarrera horiek kobratu izanaren egiaztagiriak aurkeztuko dira.

– Eskaera inprimakian adierazi bada balora dadila “emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren pizgarria” atala: horretarako gauzatu diren ekintza zehatzak frogatzeko agiriak aurkeztu behar dira.

Nolanahi ere, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak aukera izango du beste dokumentu batzuk ere eskatzeko, egoki baderitzo memorian aipatzen dena egiaztatzeko.

Fakturak ondasuna edo zerbitzua hornitzen duenak eginak izan behar dira; gainera, Fakturazio Betebeharren Arautegia (fakturazio arautegia) onesten duen Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuak ezartzen duena bete beharko dute. Faktura bat ez bada egiten 18/2013 Foru Dekretuaren 11. artikulua ezartzen duen epean, ez da onartuko dena delako gastua justifikatzeko.

Entitate onuradunak kontratatutako langileen gastuei dagokienez, egotzitako gastua justifikatzen duten nominak aurkeztuko dira, langileen izen zerrendarekin batera eta Gizarte Segurantzako kotizazioen likidazioaren ordainagiriarekin batera.

28.2. Diruz lagundu daitezkeen 500,00 eurotik gorako (BEZa barne) gastuen fakturen ordainketa frogagiriak aurkeztu behar dira. Horretarako, faktura horien ordainketa frogagiriak aurkeztuko dira.

28.3. Diruz lagundu daitezkeen 500,00 eurotik gorako langile gastuen frogagiri moduan haien nominak aurkezten badira, nominok ordaindutzat joko dira honako agiri hauetako bat aurkeztuta:

– Nominak, langileak sinatua; zenbatekoa kobratu dela zehaztu behar da.

– Langileak izenpetutako idazkia, zehazten duena langileak zenbatekoa kobratu duela, eta zein hilabete edo kontzepturengatik.

– Nominen ordainketaren banku laburpena.

28.4. Gizarte Segurantzako kotizazioak ordaindu direla frogatzeko, Gizarte Segurantzako kotizazioen likidazioaren ordainagiria onartuko da, finantza erakunde batek zigilatua, edo, hala behar denean, kotizazioen ordainketaren banku laburpena edo frogagiri baliokidea.

28.5. Ordainketak 500,00 eurotik gorakoak direnean (BEZa barne) eta horietan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren (PFEZa) edo sozietateen gaineko zergaren konturako atxikipena egin behar bada, dirulaguntzaren entitate onuradunak PFEZaren edo sozietateen gaineko zergaren kontura atxikitako zenbatekoen sarrera justifikatu beharko du.

Memoria aurkezteak baimena emango dio Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzari Arabako Foru Ogasunean behar diren egiaztapenak egiteko.

Atxikipenak Arabakoaz besteko zerga administrazio bati aurkeztu behar bazaizkio, dirulaguntza esleitu zaion erakundeak aurkeztu beharko ditu PFEZaren atxikipenak egin diren urteko 110 eta 115 ereduaren kopia bana, dagozkien ordainagiriekin batera, bai eta urteko 190 eta 180 ereduaren kopiak ere, behar bezala zigilaturik, egindako atxikipenak ordaindu direla egiaztatzearen.

110 eta 115 inprimakiek bankuaren ordainketa zigilua eduki beharko dute, edo bankuko ordainagiri egokia erantsita eraman.

Diruz lagundutako gastuek 15. eta 22. artikuluetan aipatzen diren dirulaguntza jaso dezaketen gastuei aplikatu beharreko portzentajeak aplikatzearen ondorioz jaso badute dirulaguntza, ez da beharrezkoa izango PFEZaren edo sozietateen zergaren konturako atxikipenen sarrera justifikatzea.

28.6. Titulartasun publikoko entitateek ez dute zertan aurkeztu 4. eta 5. ataletan eskatzen dena.

28.7. Ez da onartuko eskudirutan ordaintzea 2020rako indarreko araudian ezartzen den zenbatekoa edo hortik gorakoa (edo horren kontrabalioa atzerriko dirutan).

Aurreko paragrafoan aipatzen den zenbatekoa kalkulatzeko, baldin eta ondasun ematea edo zerbitzua zatikatu bada, eragiketa edo ordainketa guztien zenbatekoak batuko dira.

28.8. Erantzukizunpeko aitortpen bat aurkeztuko da, jatorrizko frogagiriak gordailututa egoiteari buruzkoa, eta adierazpenean jasota egon beharko da aurkeztutako dokumentazioa zein emaniko laguntzaren frogagiriak (gastu eta ordainketa agiriak) bat datozela fidelki jatorrizko agiriekin, zeinak gordailututa egongo baitira pertsona fisiko edo juridikoaren legezko egoitzan. Adierazpen hori kasuan kasuko legezko arduradunak sinatu beharko du.

Egindako prestakuntza ekintzetatik gutxienez ehuneko10ean egiaztatuko da, ausazko eta /edo hautazko laginketa tekniken bidez, memorian aurkeztutako fakturen eta ordainketa ziurtagirien kopiak egiazkoak direla.

Ordainketa egiteko erabili diren fakturen eta ordainketa ziurtagirien jatorrizkoak aurkezteko eskatzen denean, edo memorian aurkeztutako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko beste edozein agiri, eta ez badira aurkezten edo behar bezala justifikatzen horretarako ezarri den epean, dirulaguntza baliogabetu edo ordaindu beharreko zenbatekoa murriztu ahal izango da; dirulaguntza jadanik ordainduta badago, oso-osorik edo zati bat itzultzeko eskatu ahal izango da, dagozkion berandutze interesekin batera.

Aurkeztutako dokumentazioa begiratu eta ikusten bada ez datorrela bat jatorrizkoarekin, dagokion zatia itzultzeko eskatuko da.

28.9. Baldintza horiek bete ezean, ordaindutako dirulaguntza itzultzeko erreklamazioa egingo da.

### **29. artikulua. Entitate onuradunak dirulaguntza publiko egin beharra**

Prestakuntza ekintza baterako dirulaguntza jasotzen duten entitateek publiko egin beharko dute prestakuntza ekintzak Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso duela.

Horretarako bi aukera daude: horren berri eman ikasleei banatzen dieten dokumentazioan edo prestakuntza ekintzaren publizitatean agertu.

### **30. artikulua. Frogagiriak aurkezteko lekua eta epea eta dirulaguntza ordaintzeko eskaera**

30.1. Frogagiriak 26.1 artikuluan adierazi den moduan aurkeztu behar da modu elektronikoa.

30.2. Arau orokor gisa, prestakuntza ekintza amaitu eta gero, frogagiriak aurkeztu ahal izango dira, eta dirulaguntzaren kobrantza eskatu, urtebeteko gehieneko epearen bukaera arte itxaro beharrik gabe. Hori da, hain zuzen ere, dirulaguntza kobratzeko epeak arintzeko modu egokia.

Esandakoa gorabehera, hiru epemuga ezartzen dira agiriak aurkezteko eta dirulaguntzaren ordainketa eskatzeko:

a) 2020ko urriaren 1a baino lehen amaitzen diren prestakuntza ekintzen frogagiriak 2020ko urriaren 15erako (14:00ak arte) aurkeztu behar dira, beranduenez.

b) 2020ko urriaren 1etik 31ra bitartean (bi egun horiek barne) amaitzen diren prestakuntza ekintzen frogagiriak 2020ko azaroaren 16rako (14:00ak arte) aurkeztu behar dira, beranduenez.

c) 2020ko azaroaren 1etik 30era bitartean (bi egun horiek barne) amaitzen diren prestakuntza ekintzen frogagiriak 2020ko abenduaren 4rako (14:00ak arte) aurkeztu behar dira, beranduenez.

30.3. 28. artikuluko 2., 3., 4. eta 5. apartatuetan adierazitako agiriak aurkezteko epea 2021eko apirilaren 15ean bukatuko da (14:00ak arte).

Hala ere, justifikatutako arrazoiengatik frogagiriak aipatutako epean aurkeztu ezin badira, epea luzatu ahal izango da falta diren frogagiriak behar bezala aurkeztu ahal diren arte.

30.4. Frogagiriak epez kanpo aurkezten badira, gerta liteke emandako dirulaguntza balio-gabetzea.

### **31. artikulua. Dirulaguntzak ordaintzea**

Behin diruz lagundutako prestakuntza ekintza behar bezala justifikatu eta gero, eta dirulaguntza eman zuen ebazpenean zehaztutako betekizun eta baldintza guztiak beteta, kasuan kasuko dirulaguntzaren likidazioa egingo da.

Ordainduko den dirulaguntzaren kopurua, gehienez ere, esleitzeko ebazpenean onartutakoa izango da, eta aurkeztutako frogagiria dela-eta, ikastaroetarako 8., 12., 15., 16. eta 17. artikuluetan ezarritakoa eta jardunaldietarako 8., 20., 22., 23. eta 24. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da.

28. artikuluko 2., 3., 4. eta 5. idatz zatietan adierazitako agiritakoren bat aurkeztu gabe baldin badu, badago dirulaguntza ordaintzea justifikatu beharreko aurrerakin moduan.

## **VI. KAPITULUA**

### **BESTE XEDAPEN BATZUK**

### **32. artikulua. Eskaeran sartutako datuak aldatzea**

32.1. Diruz lagundutako prestakuntza ekintzei dagokienez, aurkeztutako eskaeretan jaso diren datuetan aldaketarik egonez gero, horren berri eman beharko zaio, idatziz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Saileko eta Foru Administrazioiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari.

Informazio hori ikusita, Arabako Foru Aldundiak aukeran izango du hasiera batean esleitutako zenbatekoa aldatzea edo, prestakuntza ekintzaren ezaugarriak edo hura gauzatzeko baldintzak nabarmen aldatzen badira, aukeran izango du esleitutako dirulaguntza balio-gabetzea.

32.2. Hala ere, ez da beharrezkoa izango diruz lagundutako prestakuntza ekintza gauzatzeko aurreikusitako egunen aldaketaren berri ematea, baldin eta jarduera bukatzen den egunak ez badakar berekin 30.2 artikuluan memoria aurkezteko ezarritako epearen aldaketarik eta ez badu gainditzen 8. artikuluan ezarritako data (2020ko azaroaren 30a).

32.3. Eskaeran jasotako datuak aldatzera eraman duten arrazoiak jakinarazten ez badira, dirulaguntza galdu edo murriztu ahal izango da, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren iritziz aldaketa horrek dirulaguntzak ematerakoan kontuan hartu ziren baldintzak aldatzea ekarri badu.

### **33. artikulua. Azpikontratazioa**

33.1. Oinarri hauetan deskribatzen diren entitate onuradunek hirugarren pertsonekin itundu dezakete horietan aipatzen diren eta laguntza jaso dezaketen jardueren betearazpen osoa edo partziala. Azpikontratazioak honako hauek bete beharko du: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 27. artikulua eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araubidea onetsi zuen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68. artikulua.

33.2. Entitate eskatzaileak diruz lagundutako jarduera osorik edo zati batean azpikontratatzeko badu lotura duen pertsona batekin, eskaera aurkezteko unean, aurretiko baimena eskatu beharko du eta, horretarako, nolana ere, azpikontratatu dituen zerbitzuen prestazioaren aurrekontua aurkeztu beharko du, lotura duen pertsonak edo entitate hornitzaileak emandakoa.

### **34. artikulua. Istripuetarako eta erantzukizun zibileko aseguruak**

Dirulaguntzak jasotzen dituen erakundearen kontu izango dira diruz lagundutako prestakuntza ekintzak egiten ari diren bitartean istripuengatik eta erantzukizun zibilagatik izan daitezkeen arriskuen estaldura.

**35. artikulua. Araudi aplikagarria**

Deialdi hau oinarri hauek arautzen dute, baita Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumenen eremuan ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaileek ere (Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretua).

Oinarri hauetan xedatzen ez dena hauexek arautuko dute: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua; Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontu Araubide Ekonomikoaren abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua; indarrean dagoen aurrekontua arautzen duen foru araua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta aplikagarri diren gainerrako arauak.

Emakume eta gizonen arteko berdintasunaz den bezainbatean, indarrean den araudia aplikatuko da, eta bereziki, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren araudi esparrua, Euskal Autonomia Erkidegoko otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarria.

**36. artikulua. Interpretazioa eta garapena**

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio deialdi honen oinarri espezifikokoak interpretatzeko, bai eta oinarriok behar bezala aplikatzeko behar diren xedapen guztiak ebazpenen bitartez garatzeko ere.

**37. artikulua. Dirulaguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna**

Dirulaguntza eskaera aurkeztu eta gero beste laguntzaren bat lortzen bada, ahalik eta lasterren horren berri eman beharko zaio, idatziz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzari. Hark eman den dirulaguntzaren zenbatekoa edo baldintzak aldatzea proposa dezake.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntza bateragarria izango da beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek kontzeptu eta xede beragatik emandako beste edozein dirulaguntza edo laguntza motarekin.

Deialdi honen bidez lortutako laguntzari besterik gehituko balitzaio, edozein dela ere haren izaera (publikoa edo pribatua) edo hura ematen duen organoa, haien batura ezin izango litzateke izan diruz lagundutako jardueraren edo proiektuaren kostua baino gehiago.

**38. artikulua. Espedienteak beste laguntza programa batzuetara aldatzea**

Aurkezten den eskaeraren bat ezin bada izan deialdi honetan arautzen diren dirulaguntzen onuradun eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren aburuz hobeto egokitzen bazaio berak kudeatzen duen beste deialdi bateko dirulaguntzei eta horrelako baten onuradun izateko aukera badu, deialdi horretarako aldatuko da.

**39. artikulua. Azken klausula**

Foru Agindu honetan ezarritako prozedura Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 49/2019 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorretan ezarritakoaren mende dago, bai eta dirulaguntzen arloan Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak, 2018rako aurrekontua gauzatzeari buruzko abenduaren 21eko 17/2016 Foru Arauak, Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta dirulaguntzei buruzko ondorengo xedapen guztiek dirulaguntzen arloan geroago arautzen dituzten xedapenen mende ere.